

## **Frantzisko Aita Santuaren mezua, 2024ko Migratzailearen eta Errefuxiatuaren Munduko 110. Jardunaldirako**

Jarraian, 2024ko irailaren 29an, igandea, Migratzailearen eta Errefuxiatuaren Munduko 110. Jardunaldirako, Aita Frantzisko Santuaren mezua argitaratzen dugu. Gaia: «Jainkoa bere herriarekin dabil».

### **Aita Santuaren mezua**

#### ***Jainkoa bere herriarekin dabil***

Anai-arreba maiteok:

2023ko urriaren 29an amaitu zen Gotzainen Sinodoaren XVI. Ohiko Batzar Nagusiaren lehen saioa, eta, horri esker, sinodaltasunean sakondu ahal izan dugu Elizaren jatorrizko bokazio gisa. «Sinodalitatea, nagusiki, Erresumako gertakariaren zerbitzura, Jainkoaren Herriaren bide bateratu, eta karisma eta ministerioen elkarriketa emankor gisa aurkezten da» ([Sintesi Txostena](#), Sarrera).

Alderdi sinodalean indarra jartzeak, bere izaera ibiltaria berraurkitzen laguntzen dio Elizari, Jainkoaren herri bezala historian zehar bidean, erromes bezala; Zeruetako Erresumarantz migratzen ari dela esango genuke (ik. [Lumen gentium](#), 49). Exodoaren Bibliako kontakizunaren aipamena, Israelgo herria, agindutako lurreranzko bidean aurkezten duena, gogorarazlea da: esklabutzatik askatasunerako bidaiia luzea, Jaunarekin azken topaketarantz aurreratu duen Elizarena.

Era berean, gure garaiko emigranteengan, garai guztietakoetan bezala, Jainkoaren herriaren irudi bizi bat ikus daiteke betiereko herrirako bidean. Bere itxaropen bidaiak zera gogorarazten digute: «gu zeruko herritarrak gara, eta sutzuki espero dugu, handik, Salbatzaile gisa, Jesukristo Jauna etortzea» (Flp 3,20).

Bi irudiek –Bibliako exodoarenak eta migratzaileenak– antzekotasun batzuk badituzte. Moisesen garaian Israelgo herriak bezala, migratzaileek sarritan ihes egiten dute zapalkuntza eta abusu-egoeretatik, segurtasunik eza eta diskriminaziotik, garapen-proiektu ezetik. Eta hebrearrek basamortuan bezala, emigranteek ere oztopo asko topatzen dituzte bidean barrena: egarriak eta goseak tentatzen dituzte; lanak eta gaixotasunak lur jota uzten dituzte; etsipenak zirikatzen ditu.

Baina exodoaren oinarrizko errealitatea, exodo bakoitzarena, Jainkoak bere herriaren, eta bere seme-alaba guztien ibilera, edozein denbora eta lekutan, lehenetsuna izan, eta laguntzen duela da. Jaungoikoaren agerpena herriaren baitan, salbazioaren historiaren ziurtasun bat da: «Jauna, zure Jainkoa, zurekin batera dago,

eta berak ez zaitu, ez alde batera, eta ezta babesik gabe ere utziko» (Dt 31,6). Egiptotik irten zen herriarentzat, agerpen hau modu ezberdinetan adierazten da: hodei eta suak bidea erakusten eta argitzen dute (ik. Ex 13,21); Elkarretaratzearen Karpak, itunaren kutxa zaintzen duenak, begien bistako egiten du Jainkoaren hurbiltasuna (ik. Ex 33,7); brontzezko sugea duen mastak jainkotiarraren babesa ziurtatzen du (ik. Nm 21,8-9); herri gose eta egarrituarentzat, mana eta ura, Jainkoaren dohainak dira (ik. 16-17). Karpa, modu bereziki atsegina da Jaunarentzat. Daviden erregealdian, Jainkoak uko egin zion tenplu batean giltzapetua izateari karpa batean bizitzen jarraitzeko, eta horrela, bere herriarekin ibili ahal izateko, eta, beraz, «karpaz karpa eta bizilekuz bizileku» ibili zen (1 Cr 17,5).

Emigrante askok, Jainkoa bidaia-lagun, gidari eta salbamen-aingura bezala sentitzen dute. Berari agintzen zaizkio abiatu aurretik, eta Berarengana jotzen dute premia-egoeretan. Etsipen uneetan kontsolamendua bilatzen dute Berarengan. Berari esker, samariar onak daude bidean zehar. Berari, otoitzaren bidez, bere itxaropenak fidatzen dizkiote. Zenbat Biblia, ebanjelio, otoitz-liburu eta arrosario ote dituzten lagun emigranteek basamortuetan, ibaietan, itsasoetan eta kontinente guztietako mugetatik barrena egiten dituzten bidaietan.

Jainkoa, bere herriarekin batera ibiltzeaz gain, bere herrian ere, egon badago; gizon eta emakumeekin bat egiten du historian zeharreko euren ibilian –batez ere azkenekoekin egiten du bat, pobreekin, baztertuekin– Gizakundearen misterioaren luzapen gisa.

Horregatik, migratzailearekin elkartzea, premia duen anaia eta arreba bakoitzarekin bezala, «Kristorekin elkartzea ere bada. Berak esan zigun. Bera da, gosetuta, egarri, kanpotar, bilutsik, gaixo eta espetxeratuta, gure atea jotzen duena, bera aurkitu eta lagundu dezagun eskatuz» ([Meza Santuaren Homilia Beldurretik Libre topaketan parte hartzen dutenentzat](#), Sakrofano, 2019ko otsailaren 15a). Mateok, bere Ebanjelioaren 25. kapituluaren kontakutako azken judizioak, ez du zalantzarako inolako tarterik uzten: "bidenabar nengoen, eta ostatu eman zidaten" (35. lib.); eta berriz ere, "nire anaiarik txikienarekin egin zenuten bakoitzean, nirekin egin zenutela egiaztatzen dizuet" (40. lib.). Horregatik, bidean zeharreko elkarretaratze bakoitza, Jauna aurkitzeko aukera bat da; eta, salbamenez beteriko aukera bat da, izan ere, gure laguntza behar duten ahizpa edo anaia bakoitzarengan baitago Jesus. Zentzu honetan, pobreek salbatu egiten gaituzte, Jaunarekin topo egiten uzten baitigute (ik. [Pobreen Munduko III. Jardunaldirako mezua](#), 2019ko azaroaren 17a).

Anaia eta arreba maiteok, migratzaile eta errefuxiatuei eskainitako Jardunaldi honetan, egin dezagun otoitzean bat, bizi-baldintza duinen bila bere herritik alde egin behar izan duten guztien alde. Jarri gaitezen beraiekin batera bidean, egin dezagun elkarrekin "sinodoa" eta eman diezaiegun guztiei, eta baita hurrengo sinodo batzarri ere, "Ama Birjina Dohatsuaren bitartekotza, Jainkoaren Herri leialaren bidean itxaropen eta kontsolamendu ziurraren adierazgarria» ([Sintesi Txostena](#), Bideari jarraitzeko).

## **Otoitza**

Jainkoa, Aita ahalguztiduna,  
zure Eliza erromesa gara  
Zeruetako Erreinurantz doana.  
Gutako bakoitza bere sorterrian bizi da,  
baina atzerritarrak bagina bezala.  
Atzerriko eskualde oro da gure herria,  
hala ere, herri oro atzerria da guretzat.  
Hemen, lurrean bizi gara,  
baina gure hiritartasuna zeruan dugu.  
Ez gaitzazu aldi baterako  
etxe gisa utzi diguzun  
munduaren zatiaz nagusitzen utzi.  
Lagundu iezaguzu ibiltzeari inoiz ez uzten  
gure anai-arreba migratzaileekin batera  
zuk prestatu diguzun betiko bizilekurantz.  
Ireki gure begiak eta gure bihotza  
behar dutenekin topaldi bakoitza  
Jesusekin ere bat egiteko une izan dadin,  
Zure semea eta gure Jauna.  
Amen.

*Erroma, Letrango San Juan, 2024ko maiatzaren 24a, Ama Birjina Laguntzailea  
Dohatsuaren Memoria.*

*FRANTZISKO*